



Instrukzioa, 2013ko irailaren 11koa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun sailburuordearena, animalien ongizatearen alorrean prestakuntza-ikastaroak eta gaitasun-ziurtagiria ematea eskuordetzeko.

Lege-oinarria: 1099/2009 (EE) Erregelamendua, animaliak hiltzeko unean haien babesteari buruzkoa.

Hartzaileak: Hiltegietako eragile ekonomikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegietako albaitari ofizialak.

Prestakuntza erakunde hauen esku utziko da: unibertsitateak, zuzenbide publikoko erakundeak, profesionalen elkargoak, kooperatibak, ekoizle-erakundeak, ikastetxe publiko zein pribatuak eta enpresa edo erakunde pribatuak.

1.- SARRERA

Aurreko araudiarekiko 1099/2009 Erregelamenduak (EE) eragin duen berrikuntza nagusietako bat da hiltegietan animaliak hil eta horrekin zerikusia duten jarduerak egiteko prestakuntzari eta langileek animalien ongizatearen alorrean behar duten gaitasun-ziurtagiriari buruzkoa.

Erregelamenduak ezarritakoaren arabera, estatu kideek hautatuko dute zer agintari eskudunak izango duen honako hauen ardura:

- Animaliak hiltzen eta horri lotutako jardueretan parte hartuko duten langileei prestakuntza-ikastaroak eskaintzen zaizkiela zaintzea.
- Beste erakunde baten esku uztea prestakuntza-ikastaroen antolaketa, amaierako azterketa egitea eta gaitasun-ziurtagiria ematea; erakunde horiek, hori bai, zeregin hauetarako beharrezko ezagutza, langileak eta ekipamenduak eduki behar dituzte, eta independenteak izan, eta interes-gatazka guztietatik kanpo egon behar dute, amaierako azterketa egiteko eta gaitasun-ziurtagiriak emateko.
- Herritarren esku jartzea, Interneten, egiteko horietarako eskuordetutako elkarteetan edo erakundeetan xehetasunak.
- Eskuordetzea etetea eta kentzea.
- Prestakuntza-ikastaroen programak, iraupena eta edukia onartzea.
- Gaitasun-azterketen edukia eta modalitateak onartzea, bai eta horretarako ematen den ziurtagiria onartzea ere.

- Behin-behineko gaitasun-ziurtagiriak egitea.
- Lanpostuan 3 urteko eskarmentua duten langileek gaitasun-ziurtagiria lortzeko prozedura sinplifikatua onartzea.
- Ziurtagiria eteteko eta kentzeko prozedura.
- Ziurtagiriak agintari eskudunen artean eta estatu kideen artean onartzea, bai eta profesionalen kualifikazioak onartzea ere.

Horregatik guztiagatik ematen da **INSTRUKZIO** hau:

2.- INSTRUKZIOAREN HELBURUA

Hau du xede instrukzio honek: prestakuntza-ikastaroak eskuordetzeko arauak ezartzea; prestakuntza ikastaro horiek hiltegietan animaliak hiltzen dituzten eta giza kontsumorako (etxeko kontsumo pribaturako izan ezik) elikagaiak ekoiztearekin zerikusia duten beste jarduera batzuk egiten dituzten langileek animalien ongizatearen alorreko gaitasun-ziurtagiria lortzekoak dira.

3.- IKASTAROEN GUTXIENeko EDUKIA

Hau da prestakuntza-programaren edukia: modulu orokor komun bat, modulu espezifiko bat, kasuan kasuko espezie-kategoria bakoitzeko eta animalia hiltzeko modulu espezifiko praktiko bat, ongizatearekin lotutako jardueretarako.

Ikastaroen gutxieneko edukia eta iraupena instrukzio honen I. ERANSKINEAN adierazi dira.

Espezie edo espezie-talde hauen arabera sailkatuko dira ikastaroak:

- Behiak eta zaldiak
- Txerriak
- Hausnarkari txikiak
- Hegaztiak
- Ratiteak
- Lagomorfoak

Modulu orokorra behin baino ez da egingo, baldin eta langileak espezie-kategoria baterako baino gehiagorako ziurtagiriak eskatzen baditu.

3.- IKASTAROEN ANTOLAKETA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak honako hauen esku uzten du instrukzio honek xede dituen ikastaroak antolatzea eta ematea: unibertsitateak, zuzenbide publikoko erakundeak, profesionalen elkargoak, kooperatibak, ekoizle-erakundeak, ikastetxe publiko zein pribatuak eta enpresa edo erakunde pribatuak.

Prestakuntza egiteko interesa duten erakundeek edo elkarteek Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako zuzendariari egingo diote eskaria, **II. ERANSKINEKO** ereduaren arabera. Lurralde historikoetako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Jarduera eskuordetzeko eskaerarekin batera dokumentazio hau erantsiko da:

- Ikastaroaren memoria.
- Emango den programa, zehaztuta unitate didaktiko bakoitzaren edukia, eskola-orduak eta eskola-mota zein iraupena.
- Irakasleen izen-abizenak, haietako bakoitzaren NANren fotokopia, ikasketa-tituluaren fotokopia eta *curriculum vitae* sinatuta. Albaitari-lanetan jarduteko beharrezko titulua izango dute irakasleek, edo bestela, animalien ongizatearen alorrean baliokidea den prestakuntza duela ziurtatzen duen beste titulu bat.
- Eskola teorikoak zein praktikoak emateko dituen instalazioen, bitartekoen, materialaren eta ekipoen deskripzioa.
- Parte-hartzaileen ebaluazioa egiteko irizpideak.
- Interesgarritzat hartzen diren beste dokumentu batzuk.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza da eskaerak ebazteko eskumena duen organoa, bai eta eskuordetzea kentzeko eskumena duena ere, baldin eta ikuskaritzaren emaitzen arabera agerian geratzen bada erakunde edo elkarte horiek ez direla eskuordetutako eginkizunak behar bezala betetzen ari.

Ikuskaritzak *in situ* egingo dira, ikastaroa ematen denean.

Ikastaroa antolatzeko hautatutako erakundeek edo elkarteek Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari jakinarazi behar diote eskatutakoaren gainean egindako aldaketa oro.

Ikastaroa antolatzeko hautatutako erakundeek edo elkarteek kasuan kasuko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzari jakinarazi behar diote ikastaroaren hasiera-eguna, hasi baino 20 egun lehenago gutxienez, bai eta ikastaroan parte hartuko duten ikasleen eta eskolak emango dituzten irakasleen izen-abizenak ere.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak erakundeei edo elkarteei egindako eskuordetzea baliogabetu ahal izango du, baldin eta egiaztatzen badu ez direla zehaztutako gaiak irakasten, edo ezarritako iraupena, metodologia eta gainerako irizpideen arabera ez direla irakasten egiaztatzen bada; izan ere, alderdi horiengatik guztiengatik hautatu ziren erakunde horiek ongizatearen alorreko prestakuntza-egitekoak betetzeko.

4.- GAITASUN-AZTERKETAREN EDUKIA ETA MODALITATEAK

Prestakuntza-ikastaroan parte hartzen duten guztiek gainditu behar dute amaierako azterketa independente bat, gaitasun-egiaztageria jaso ahal izateko.

Amaierako azterketa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak egin ahal izango du, edo ikastaroak antolatzeke eta emateko beharrezko baldintzak betetzeaz gain, eskuordetzean eman zaizkion eginkizunekiko independenteak diren eta interes guztietatik kanpo dauden erakundeek.

Azterketaren edukia **III. ERANSKINEAN** ezarri da.

Amaierako azterketa aurrez aurrekoa izango da beti. Idatzizko proba bat izango da; nolana ere, beharrezkotzat jotzen bada, ahozko proba bat egin ahal izango da (irakurtzeko, idazteko eta hizkuntza-arazoak dituztenek, besteak beste).

5.- GAITASUN-ZIURTAGIRIA LORTZEKO PROZEDURA

Gaitasun-ziurtagiria lortzeko ezinbestekoa izango da eskola ordu guzti-guztietara joatea, amaierako azterketa independentea gainditzea eta interesdunak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari zinpeko deklarazio bat aurkeztea, adierazten duena ziurtagiri hori eskatu aurreko hiru urteetan ez duela Europako zein Espainiako araudietako arau-hauste larririk egin animalien babeseko alorrean.

Ziurtagiriaren eredua eta haren edukia **IV. ERANSKINEAN** ezarritakoaren arabera izango da.

Ikastaro homologatua antolatzen duen erakundeak nahitaez aurkeztu behar ditu ikastaroa eman den lurraldeko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzan, ikastaroa amaitu eta gehienez 30 eguneko epean, **V. ERANSKINEAN** adierazitako datuak euskarri informatikoan, bai eta paperean ere, espediente bakar batean multzokatuta.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak behin-behineko gaitasun-ziurtagiriak egin ahal izango ditu, baldin eta:

- Eskatzaileak prestakuntza-ikastaroren batean izena eman badu
- Jarduera jakin horretarako gaitasun-ziurtagiria duen norbaiten aurrean eta pertsona horren ikuskaritzapean lan egin behar badu eskatzaileak
- Behin-behineko ziurtagiriak gehienez ere hiru hilabeterako balio badu, eta

- Eskatzaileak idatzizko adierazpen bat aurkezten badu, adierazteko alor bereko beste behin-behineko gaitasun-ziurtagiri bat ez duela jaso edo behar bezala egiaztatzen badio agintari eskudunari ezin izan duela amaierako azterketa gainditu.

6.- PROFESIONALEN KUALIFIKAZIOAK ONARTZEA

Albaitari-lanetan jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen titulua onartuko da, edo, bestela, animalien ongizatearen alorrean baliokidea den prestakuntza duela ziurtatzen duen beste titulu bat.

7.- ZIURTAGIRIA ETETEKO ETA KENTZEKO PROZEDURA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eten eta kendu ahal izango ditu langileei emandako gaitasun-ziurtagiriak, ziurtagiria eman zaion jarduerak egiteko nahikoa gaitasun, ezagutza edo eginkizunei buruzko nahikoa kontzientzia ez duela erakusten duen unean berean.

Agintari eskudunak gaitasun-ziurtagiria etetea edo kentzea proposatzen duenean, erabakiaren berri emango dio erakunde igorleari eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari horretarako propio ezarritako bitartekoen bidez, eta azken horrek aldi berean AESAN erakundeari emango dio erabakiaren berri, erregistra dezan.

gaitasun-ziurtagiri bat kendu ondoren, beste bat lortu ahal izango da ohiko prozeduraren bidez, baldin eta ebazpen bidez ez bada interesduna gaitasunik gabe uzten beste bat lortzeko.

8.- GAITASUN-ZIURTAGIRIA LORTZEKO PROZEDURA SINPLIFIKATUA

2015eko abenduaren 8ra arte Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak gaitasun-ziurtagiriak eman ahal izango ditu. Ziurtagiri horiek prozedura sinplifikatu bidez emango dizkie gutxienez lanbidean hiru urteko eskarmentua dutela egiaztatzen duten pertsonei.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko irailaren 11n

OSASUN SAILBURUORDEA
GUILLERMO VIÑEGRÁ GARCIA

I. ERANSKINA

PRESTAKUNTZAREN PROGRAMA ETA GUTXIENeko IRAUPENA

Modulu orokorra: 10 ordu

Espezieen araberako modulu espezifikoa: 8 ordu

Modulu espezifikoko praktikoa: 2 ordu

Modulu orokor komuna

1. Sarrera. Animalien ongizatearen alorreko prestakuntzaren premia

Animalien ongizatea EBn eta munduan. Animalien ongizatea legedian. Animalien ongizateari buruzko legediaren eta animalien zaintzaz eta animaliak maneiatzeaz arduratzen diren langileen prestakuntzari buruzko alderdi orokorrak.

Gizarteak animalien ongizateaz duen ikuspegia.

Animalien ongizatea, elikagaien kalitatea eta segurtasuna.

Ongizatea, ekonomia-faktore gisa.

2. Errenta-animalien espezieen anatomia eta fisiologia

Animaliaren portaera, espeziearen, arrazaren eta egoeraren arabera; sufrimendua, kontzientzia eta sentsibilitatea. Anatomia- eta zentzumen-baldintzak eta beste baldintza batzuk. Portaera soziala. Gizakiarekiko harremana. Animaliaren ongizatea eta egokitzapena. Egokitzapena: kontzeptua eta garrantzia. Etologia

Osasuna, estresa, gaixotasuna. Gaixotzeko aurretiazko jarreraren kausak eta kausa erabakigarriak. Ongizate gabeziaren adierazpena eta neurria. Higienea eta prebentzioa, ongizatearen faktore gisa

3. Animalien ongizatearen alderdi praktikoak.

Ingurumenaren eragina animalien ongizatean.

Animaliak maneiatzea eta animalien portaera.

Animalien lesioei eta gaixotasunei aurre egiteko jarduerak.

Lan-prozedurak, hiltegietan animalien ongizatea monitorizatzeko eta ongizateari buruzko baldintzak betetzeko.

Haragiaren kalitatean eta balio-bizitzan ongizatea aplikatzeak dituen ondorioak (aziendak hil eta prestatzean dituen ondorioak, hobeto odolustean, ondo hidratatutako animalia hobeto larrutzen da, higieña hobea da, mikrobioak gutxiago ugaltzen dira, etab.).

Modulu espezifikoa. Espeziearen araberakoa.

1. Animaliak sakrifikatzean edo hiltzean animalien babesari buruzko legedi espezifikoa. Alderdi sozialak.
2. Garraio-jarduerak. Garraiatzeko gaitasuna. Gertaerak eta jarduerak. Animaliak deskargatzea, maneiatzea eta batetik bestera eramatea. Animalien garraio, deskarga eta manipulazioaren zenbateko ekonomikoak kanaleko kalitatean duen eragina.
3. Hiltegiatako egituren eragina. Bizilekuak, instalazioak, zaintzak eta elikagaien zein uraren hornidura. Hiltzera eramatea. Animalia lotzeko sistemak; animaliak maneiatzeko eta lotzeko alderdi praktikoak. Debekatuta dauden jarduerak. Animalien portaera eta laneko segurtasuna. Hiltze-ildoak, espezieen arabera. Lotzeko ekipamendu-motari buruz fabrikatzaileak emandako jarraibideak jakitea, baliabide mekanikoak erabiliz gero.
4. Zorabiarazteko metodoak eta tresnak. Zorabiatzeko teknikei buruzko alderdi praktikoak eta zorabiarazteko erabilitako ekipamendu-motari buruz fabrikatzaileak emandako jarraibideak jakitea. Zorabiarazteko ekipamenduen mantentze-lana. Debekatuta dauden metodoak. Zorabiatzeko edo hiltzeko metodo osagarriak. Zorabiarazteko edo hiltzeko ekipamenduaren oinarrizko mantentze-lana eta garbiketa.
Zorabio eraginkorra ebaluatzea; zorabiaraztea eraginkorra den aztertzea. Hiltzea; animalia bizien odolustea. Zorabiaraztea eraginkorra den eta bizi-zantzurik ez dagoela gainbegiratzea. Zorabiarazteko edo hiltzeko metodo osagarriak. Odolusteko labanen erabilera eta mantentze-lan egokiak. Zorabiaraztea onartzen ez duten erlijio-errituen bidezko sakrifizioa. Odolusteko labanen erabilera eta mantentze-lan egokiak. Bizi-zantzurik ez dagoela kontrolatzea.
5. Gabeziak, akats eta ohiko jarduera desegokiak, eta horiek zuzentzeko modua.

Modulu espezifikoa praktikoa

Hiltegiatiko prozesatze-jarduerak eta instalazioak benetan ezagutzea, *in situ* bisita eginez edo ikus-entzunezko simulazio bidez.
Kasu praktikoak; azalpenei buruzko iritzia eta eztabaida. Eztabaida-tailerra, parte-hartzaileek egindako ekarpenekin.
Esperientzia guztiak denen aurrean aurkeztea.

II. ERANSKINA

ANIMALIAK HILTZEKO ETA HORREKIN LOTUTAKO JARDUERAK EGITEKO, ANIMALIEN ONGIZATEAREN ALORREKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK ESKUORDEZTEKO ESKAERA.

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

IZEN SOZIALA:		IFZ:
LEGEZKO ORDEZKARIA:		NAN:
Helbidea		TELEFONOA: Helbide elektronikoa:
Posta-kodea	Udalerrria	Probintzia:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

1. Eskaera honetan eta eskaerari atxikitako dokumentazioan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla.
2. Badakidala zer baldintza xedatu diren XXX Instrukzioan, apirilaren XXX(e)koan, animalien ongizatearen alorreko gaitasun-ziurtagiriak emateko prestakuntza-ikastaroak eskuordetzeko arauak ezartzen dituenean.

KONPROMISOA HARTZEN DUT:

1. Instrukzioan xedatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko erakunde eskudunak egiten dituen kasuan kasuko kontrolak egiten laguntzeko.
2. Animalien ongizatearen alorreko ezagutzak egiaztatzeko ziurtagiriak izapidetzeko eskatzen den dokumentazioa erakunde eskudunari igortzeko
3. Ikastaroak eskuordetzeko baldintzetan egindako aldaketa oro jakinarazteko.

ESKAERARI ERANTSI DIOT:

- Ikastaroaren memoria
- Irakatsiko den programa
- Irakasleen izen-abizenak
- Eskolak emateko bitartekoak, material eta ekipamendua
- Parte-hartzaileen ebaluazioa egiteko irizpideak.
- Beste zenbait dokumentu

ESKATZEN DUT

Eskuordetzea:

- Ikastaroaren antolaketa eta ikastaroa ematea
- Gaitasun-azterketa egitea

Eskuordetzeak berekin dakartzan ezagutzak:

- Modulu orokor komuna
- Espezieen araberako modulu espezifikoak:
- Modulu espezifiko operazionala:

Behi- eta zaldi-azienda	<input type="checkbox"/>	Zorabio aurreko jarduerak	<input type="checkbox"/>
Txerri-azienda	<input type="checkbox"/>	Zorabiaraztearekin zerikusia duten jarduerak	<input type="checkbox"/>
Hausnarkari txikiak	<input type="checkbox"/>	Odolustea	<input type="checkbox"/>
Hegaztiak	<input type="checkbox"/>	Erljio-errituen bidezko sakrifizioa, zorabiarazi gabe	<input type="checkbox"/>
Ratiteak	<input type="checkbox"/>		
Lagomorfoak	<input type="checkbox"/>		

(1) Jarri X dagokion laukitxoan.
(e)n, 201_(e)koaren .. (e)an

Izpta.:

OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARI JAUNA/ANDREA

III. ERANSKINA

ZIURTAGIRIA EMATEKO BEHARREZKO PROBA IDATZIAREN GUTXIENENKO EDUKIA

1.– *Sakrifizioari buruzko modulu orokorra.*

- Animalien portaera, sufrimendua, kontzientzia, sentsibilitatea eta estresa.
- Garraiatzeko gaitasuna. Gertaerak eta jarduerak.
- Animalia maneiatzeko eta animaliak lotzeko alderdi praktikoak.
- Animaliak sakrifikatzen eta hiltzeko debekatutako jardueretarako jardunbideak eta metodoak.
- Lotzeko ekipamendu-motari buruz fabrikatzaileak emandako jarraibideak jakitea, baliabide mekanikoak erabiliz gero.
- Zorabiarazteko teknikei buruzko alderdi praktikoak eta zorabiarazteko erabilitako ekipamendu-motari buruz fabrikatzaileak emandako jarraibideak jakitea.
- Zorabiarazteko edo hiltzeko metodo osagarriak.
- Zorabiarazteko edo hiltzeko ekipamenduaren oinarriko mantentze-lana eta garbiketa.
- Zorabiaraztea eraginkorra den gainbegiratzea.
- Zorabiarazteko edo hiltzeko metodo osagarriak.
- Zorabiaraztea eraginkorra den kontrolatzea.
- Odolusteko labanen erabilera eta mantentze-lan egokiak.
- Bizi-zantzurik ez dagoela kontrolatzea.

2.– *Behiei eta zaldiei buruzko modulua.*

- Behien eta zaldien anatomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak.
- Behi- eta zaldi-espezieetako animaliak sakrifikatzearekin eta hiltzearekin zerikusia duten jardueri buruzko alderdi praktikoak eta debekatutako jarduera espezifikoak.

3.– *Txerriei buruzko modulua.*

- Txerrien anatomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak.
- Txerrien espezieko animaliak sakrifikatzearekin eta hiltzearekin zerikusia duten jardueri buruzko alderdi praktikoak eta debekatutako jarduera espezifikoak.

4.– *Hausnarkari txikiei buruzko modulua.*

- Hausnarkari txikien anatomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak.
- Hausnarkari txikien espezieko animaliak sakrifikatzearekin eta hiltzearekin zerikusia duten jardueri buruzko alderdi praktikoak eta debekatutako jarduera espezifikoak.

5.– *Hegaztiei buruzko modulua.*

- Hegaztien anatomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak.
- Hegaztien espezieko animaliak sakrifikatzearekin eta hiltzearekin zerikusia duten jardueri buruzko alderdi praktikoak eta debekatutako jarduera espezifikoak.

6.– *Ratiteei buruzko modulua.*

- Ratiteen anatomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak.
- Ratiteen espezieko animaliak sakrifikatzearekin eta hiltzearekin zerikusia duten jardueri buruzko alderdi praktikoak eta debekatutako jarduera espezifikoak.

7.– *Lagomorfoei buruzko modulua.*

- Lagomorfoen anatomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak.
- Lagomorfoen espezieko animaliak sakrifikatzearekin eta hiltzearekin zerikusia duten jardueri buruzko alderdi praktikoak eta debekatutako jarduera espezifikoak.

8.– *Zorabiarazi aurreko jardueri buruzko modulua.*

- Animalia maneiatzeko eta animaliak lotzeko alderdi praktikoak.

9.– *Zorabiaraztearekin zerikusia duten jardueri buruzko modulua.*

- Animaliak zorabiarazteko eta horri buruzko ebaluazioa egiteko alderdi praktikoak.

10.– *Odolusteari buruzko modulua.*

- Odolusteko labanen erabilera eta mantentze-lan egokiak egiteko alderdi praktikoak.
- Bizi-zantzurik ez dagoela kontrolatzeko alderdi praktikoak.

11.– *Erlijio-errituen bidezko zorabiorik gabeko sakrifizioari buruzko modulua.*

- Odolusteko labanen erabilera eta mantentze-lan egokiak egiteko alderdi praktikoak.
- Bizi-zantzurik ez dagoela kontrolatzeko alderdi praktikoak.

IV. ERANSKINA

GAITASUN-ZIURTAGIRIAREN EREDUA, 1099/2009 (EE) Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera

1. LANGILEARI BURUZKO DATUAK			
1.1. Abizenak			
1.2. Izena	1.3. NANA edo pasaportearen zenbakia:		
1.4. Nazionalitatea			
2. ZIURTAGIRI-ZENBAKIA			
3. ESPEZIE-KATEGORIA			
Behi- eta zaldi-azienda	<input type="checkbox"/>	Txerri-azienda	<input type="checkbox"/>
Hausnarkari txikiak	<input type="checkbox"/>	Hegaztiak	<input type="checkbox"/>
Ratiteak	<input type="checkbox"/>	Lagomorfoak	<input type="checkbox"/>
4. LANPOSTUAK (Adierazi: jarduera guztiak; lotu aurretik animaliak maneatzea eta zaintzea; animalia lotzea, zorabiarazteko edo hiltzeko; animaliak zorabiaraztea; zorabio eraginkorra ebaluatzea; animaliak zintzilikatzeko gakoak edo bizirik altxatzekoak; animalia bizen odolustea; erlijio-errituen bidez sakrifikatzea)			
5. ZORABIAZTEKO METODOA eta/edo EKIPAMENDUA			
6. ZIURTAGIRIA EMATEN DUEN ERAKUNDEA			
6.1. Ziurtagiria ematen duen erakundearen izena eta helbidea			
6.2. Data	6.3. Lekua	6.4. Zigilua	
6.5 Izena eta sinadura			

V. ERANSKINA

ANIMALIEN ONGIZATEAREN ALORREAN EMANDAKO IKASTAROAK ANTOLATU DITUEN ERAKUNDEAREN KOMUNIKAZIOA

IKASTAROA ANTOLATU DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

IZEN SOZIALA:		IFZ:
LEGEZKO ORDEZKARIA:		NAN:
Helbidea		TELEFONOA: Helbide elektronikoa:
Posta-kodea	Udalerria	Probintzia:

IKASTAROARI BURUZKO DATUAK:

Irakatsitako moduluak:

- Modulu orokor komuna
 Espezie-kategoriaren araberako modulu espezifiko eta modulu espezifiko operazionala

Behi- eta zaldi-azienda	<input type="checkbox"/>	Zorabio aurreko jarduerak	<input type="checkbox"/>
Txerri-azienda	<input type="checkbox"/>	Zorabiaraztearekin zerikusia duten jarduerak	<input type="checkbox"/>
Hausnarkari txikiak	<input type="checkbox"/>	Odolustea	<input type="checkbox"/>
Hegaztiak	<input type="checkbox"/>	Erljio-errituen bidezko sakrifizioa, zorabiarazi gabe	<input type="checkbox"/>
Ratiteak	<input type="checkbox"/>		
Lagomorfoak	<input type="checkbox"/>		

(1) Jarri X dagokion laukitxoan.

ZIURTATZEN DU:

- Adierazitako ikastaroa eman duela
- Zerrendan adierazitako pertsonen datuak eskola-ordu guzti-guztietara (%100) joan direnen eta gaitasun-azterketa gainditu dutenenak direla

Izen-abizenak	NAN:	%100eko asistentzia	Gainditu du azterketa (1)
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

(1) Gaitasun-azterketa egiteko jarduera eskuordetuta duten erakundeek beteko dute atal hori

HAUXE ESKATZEN DU:

- Animalien ongizatearen alorreko gaitasun-ziurtagiria pertsona horiei ematea (1).
 Animalien ongizatearen alorreko gaitasun-azterketa egitea eta gaitasun-ziurtagiria ematea pertsona horiei.

(1) Gaitasun-azterketa egiteko jarduera eskuordetuta duten erakundeek beteko dute atal hori

.....(e)n, 2013koaren .. (e)an

Izpta:

OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARI JAUNA/ANDREA